FORMAKUNTZA ESKAINTZAK
Egonkortze formakuntzak
Euskara modu iraunkorrean instalatzea

Kit Harrera

Euskarazko Ongi Etorri kit bat instalatzea

Formakuntza 3 egunekoa (21or.)

HELBURUAK

- Zuen egitura profesionala edo kolektiboa, eta bere ingurunea, harrera-egoeran euskararen erabileraren ikuspegitik aztertzea.
- Euskararen erabilerarako harrera-kit bat elkarrekin eraikitzea, eta egitura profesional edo kolektiboaren funtzionamenduan barneratzea.

Formakuntza finitzean, gai izanen zara:

- harrera-egoeran euskararen erabilera errexagoa lortzeko, bakoitzaren urratsak eta beharrak identifikatzeko.
- urrats eta behar horiek kolektiboki kit batera eramateko, zure egituran harreratik euskararen erabilera bideratuko duena.
- harrera-kitaren elementuak modu praktiko eta iraunkorrean ezartzeko, zure egituraren puntu estrategikoetan.
- harrera-kita eta bere eguneratzea zure egituraren funtzionamenduan txertatzeko behar diren antolaketa- eta erabaki-espazio estrategikoak identifikatzeko.

EDUKIA

1. Eguna, goiza – Bakoitzaren pertzepzioak eta hizkuntza-desafio orokorrak
Bakoitzaren pertzepzioak eta euskararekiko duen harremana.
Euskararen biziberritzearen desafioen oinarriak.
Publikoen segmentazioa (euskaraz ez dakitenak, ikastunak, euskaldunak).

1. Eguna, arratsaldea – Bakoitzaren beharrak eta Ongi Etorri kit baten lehen elementuak
Publiko bakoitzaren urratsen eta beharren identifikazioa, harrera-egoeran euskararen erabilera errazagoa izan dadin.
Ongi Etorri kit baten oinarrizko elementuen aurkezpen orokorra.
Publikoen urrats eta berezko beharrekin lotura.

2. Eguna, goiza – Ongi Etorri kitaren lehen bertsioa
Lehen egunean sortu Ongi Etorri kitaren lehen bertsioaren inguruko lan kolektiboa.
Zuzendu edo zehaztu beharreko puntuak, eta identifikatu egokitzapenen balidazioa.

2. Eguna, arratsaldea – Publikoen berezko beharren sakontzea
Euskaraz ez dakitenekin harrera-egoeran erabiltzeko hiztegi eta esaldi motei buruzko lanketa.
Euskaldun edo ikastunekin harrera-egoeran euskararen erabilera lotsarik gabe izateko lanketa.

Tarteko lanak: Formakuntzan egin lanak kontuan harturik, Ongi Etorri kitaren behin betiko lanketa.

3. Eguna, goiza – Ongi Etorri kitaren azken bertsioa
Tarteko lanen berrikuspena: kitaren aurkezpena.
Egindako aurkezpenari buruzko elkarrizketak.
Taldearen azken balidazioa.

3. Eguna, arratsaldea – Ongi Etorri kitaren barneratzea funtzionamenduan
Egituraren antolaketa- eta erabaki-espazio estrategikoen identifikazioa.
Gure funtzionamenduan, harrera-kitaren balidazioa eta eguneratzea nola antolatuko den definitzea.
Ebaluazioa, balorazioa eta etorkizuneko ikuspegiak.

PUBLIKOA

Egitura profesional edo kolektiboetako langile, arduradun, boluntario euskaldun, ikastun eta frantsesdunak.

Arduradunen presentzia biziki gomendatzen da harrera-kita egituran errotzea errazteko.

Gutxienez 6, gehienez 12 pertsonako taldeak.

Urritasunen bat duten pertsonentzat, jar zaitezte harremanetan zuzenean administrazio arduradunarekin (Gratien Harlouchet Kamila) 06 61 50 09 29 zenbakian, behar bereziak aztertu eta ezar litezkeen egokitzapen posibleak ikusteko.

BEHARREZKOA

Ez da aitzin-baldintzarik behar.

ORDUTEGIA & EGUTEGIA

Formakuntza 3 egunekoa (9:00–12:30 // 13:30–17:00). Egun-erdika ere deklina daiteke.

TRESNAK & OINARRI PEDAGOGIKOAK

- Metodo pedagogikoak: saio dinamikoak, ilustratuak eta parte-hartzaileak.

Eduki teorikoen eta aplikazio praktikoen uztarketa.
Ikuspegi inklusibo eta progresiboa, talde-kohesio handia sortzen duena.
Bi formatzailez osatutako talde pedagogikoa, ikastunei ikuspegi global eta osagarria eskaintzeko.

- Tresnak: Lanketa jarraitua, ikastunen eta egituren beharretara egokitu kit bat osatu arte.

Wifi, bideo-proiektagailua, kita osatzeko materiala eta tokian berean bazkaltzeko aukera.

TALDE PEDAGOGIKOA

2 formatzaile esperientziadun:

Eneko Gorri: erakundeen komunikazioan eta soziolinguistikan diplomaduna, 12 urteko esperientzia toki-administrazio publikoko zerbitzuburu gisa, eta 20 urte baino gehiagoko engaiamendua mundu elkarte-mailan.

Kamila Harluxet Gratien: 15 urteko esperientzia mundu elkarte- eta instituzio-mailan, sektore linguistiko eta kulturaletan, komunikazio-euskarrien sortzailea.

EBALUAKETA

Formakuntzan ikasitakoaren azken ebaluazioa.
Formakuntza finitzean, parte-hartzaileek ebaluazio orokorra eginen dute satisfakzio-galdetegi baten bidez.
Formakuntzatik 3-6 hilabetera, parte-hartzaileek eta egiturak ebaluazio orokor bat eginen dute, harrera-egoeran euskararen erabilerari buruzko galdetegi baten bidez.

FORMAKUNTZA AGIRIA

Formakuntza-ziurtagiria.

SEGIDA POSIBLEAK

- Euskaraz ez dakiten langile edo kideak euskarara hurbiltzea deskubritze-ziklo baten bidez (14or. -> 42or.), ondotik gure partaide-sarearen bidez euskara ikasteko bide ziurtagiridun batean sartzeko aukera aztertzeko.
- Egituraren idatzizko euskarrietan euskararen presentzia eta erabilera bermatzen duen komunikazio-gida bat elkarrekin eraikitzea | 17,5or.
- Egituraren espazio formal eta informaletan euskararen ahozko erabilera modu iraunkorrean bermatzen duen erabilera-xarta bat elkarrekin eraikitzea | 17,5or.
- Egituraren euskara-plan bat edo bide-orri operatibo bat elkarrekin eraikitzea eta aktatzea (kronograma bat, ebaluazio-sistema bat instalatzea…) | 35or.

PREZIOA

- 28 € / ordu eta ikastunka
- Formakuntza osoa 392 € BEZ TVA barne ikastun bakoitzeko.

Data:
XX XX XX

Eskaintza hau 60 egunez baliagarria da.

Eguneratzea: 2026/07/31